

Astindu-k dinamikaren berri emateko aurkezpenak antolatu ditu Hego Euskal Herriko unibertsitateetan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/09/2024

Dinamikaren kideak antolakuntzarako deia egin diote ilkasleriari, unibertsitateetan ematen diren problematikak aztertzeke eta hauei aurre egingo dieten tresnak sortzeko.

ASTINDU Euskal Herriko ikasleria aktibatzeke eta antolatzeko helburu pean, **Hego Euskal Herriko campus nagusietan abiarazitako dinamika da**, JARDUN Koordinadoraren baitan kokatzen dena. Pasaden ikasturtearen hasieran aurkeztu ziren eta ASTINDU-ko militanteen lanari esker, jende berria batu zaie borrokara eta ondorioz, Hego Euskal Herriko campus nagusietan taldeak sortu eta egonkortu ahal izan zituzten.

Dinamikak azaldu duenez “unibertsitatean ematen diren problematikak aztertzea, hauei aurre egiteke tresnak sortzea eta ikasleei antolatzeko espazioak eskaintzea” dute helburu eta ,era berean, “Euskal Herriak bizi duen zapalkuntza sozial eta nazionala gaindetzera bidean, alternatiba iraultzaileari hezkuntza alorretik ere ekarpena egitea”.

Horretarako ezinbestetkotzat jo dute antolakuntza eta bide horretan dinamikaren berri emateko aurkezpenak antolatu dituzte Hego Euskal Herriko unibertsitateetan:

-NUP:

-LEIOA:

-GASTEIZ:

-IBAIETA:

<https://eh.lahaine.org/astiduk-dinamikaren-berri-emateko-aurkezpenak>